Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko uztailaren 16a, astelehena — 136 — Lunes, a 16 de julio de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORIOKO UDALA

*Orioko Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen udal kanpineko zuzendariaren plaza jabetzan hornitzeko deialdi publikoa eta oinarriak aldatzea.*

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaritzak bidalitako idatzia ikusita, Orioko udalbatzarrak, 2018ko ekainaren 26an egindako ohiko bilkuran, honako erabakiak hartu zituen:

1. Aldatzea Orioko Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen udal kanpineko zuzendariaren plaza jabetzan hornitzeko deialdi publikoa, zentzu honetan: plazaren sailkapen azpitaldea A2 da.

2. Aldatzea udal kanpineko zuzendariaren plazaren hautaketa prozesua arautuko duen lehenengo oinarria, deialdiaren xedeari dagokiona, zentzu honetan: plazaren sailkapen azpitaldea A2 da.

3. Aldatzea aipatutako plazaren hautaketa prozesua arautuko duen bigarren oinarria, plazaren ezaugarriei dagokiena, zentzu honetan: plazaren sailkapen azpitaldea A2 da.

4. Aldatzea laugarren oinarria, izangaien baldintzei dagokiena, f) puntua, eskatutako titulazioa honako hauetako bat izango dela adieraziz: Turismoko diplomatura, Enpresa eta jarduera turistikoen teknikaria, Enpresen zuzendaritza eta administrazioa, Ekonomia eta enpresa-zientziak edo Antolakuntzako Ingeniaritza edo baliokideak; aipatutako guztiak diplomatura edota erdi mailako titulazio mailarekin.

5. Aldatzea bosgarren oinarria, eskaerak aurkezteko lekuen artean, besteak beste, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoak sartzen dituena.

Puntu honetan esan behar da erregistro elektronikoari buruzko xedapenak indarrean sartu arte, indarrean jarraituko dutela azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legea) 38.4 artikuluen aurreikusitako baliabide eta bitartekoak (39/2015 Legearen laugarren xedapen iraunkorra eta xedapen indargabetzaile bakarra).

Eskabideak aurkezteko epeari dagokionez, abuztua hilabete balioduntzat hartuko da.

Baita ere honakoa adieraztea: eskariarekin batera laugarren oinarriaren a) puntuan aipatutako senidetasunaren bat egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu behar dela.

6. Epaimahai kalifikatzaileari buruzko zazpigarren oinarrian, parte hartzeari uko egiteko eta epaimahaikideak arbuiatzeko ahalmena aipatzen da 39/2015 Legean oinarrituz. Baina urriaren 1eko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea da irudi horiek xedatzen dituena (23 eta 24. artikuluak).

## AYUNTAMIENTO DE ORIO

*Modificación de la convocatoria pública y de las bases reguladoras del proceso de selección para la provisión en propiedad de una plaza de Director/a del Camping Municipal, vacante en la plantilla de funcionarios de este Ayuntamiento.*

A la vista del escrito remitido por la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Gobierno Vasco, el Pleno del Ayuntamiento de Orio, en su sesión ordinaria celebrada el día 26 de junio de 2018, adoptó los siguientes acuerdos:

1.º Modificar la convocatoria pública para la provisión en propiedad de una plaza de Director/a del Camping Municipal, vacante en la plantilla de funcionarios del Ayuntamiento de Orio, en el sentido de mencionar que la plaza pertenece al subgrupo de clasificación A2.

2.º Modificar la base primera reguladora del proceso de selección para la provisión de la plaza de referencia, relativa al objeto de la convocatoria, en el sentido de mencionar que la plaza pertenece al subgrupo de clasificación A2.

3.º Modificar la base segunda del proceso de selección de referencia, relativa a las características de la plaza, en el sentido de mencionar que la plaza pertenece al subgrupo de clasificación A2.

4.º Modificar la base cuarta, sobre los requisitos de las personas aspirantes –punto f)–, en cuanto que la titulación exigida será alguno de las siguientes títulos académicos: Técnico de Empresas y Actividades Turísticas, Diplomatura en Turismo o asimilados, Dirección y Administración de Empresas, Economía y Ciencias Empresariales, Ingeniería en Organización o asimilados, todos ellos a nivel de diplomatura o titulación de grado medio.

5.º Modificar la base quinta, acerca de los lugares para la presentación de instancias, en cuanto se señala entre otros los previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante, Ley 39/2015).

A este respecto hay que decir que, en tanto no entren en vigor las previsiones relativas al registro electrónico, mantienen su vigencia los canales y medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (Disposición transitoria cuarta y disposición derogatoria única de la Ley 39/2015).

Para el cómputo del plazo de presentación de instancias, el mes de agosto se considerará hábil.

Asimismo, señalar que junto con la instancia deberá presentarse el documento acreditativo de alguno de los vínculos de parentesco señalados en el punto a) de la base cuarta.

6.º Modificar la base séptima, acerca del tribunal calificador, en el que se hace alusión a la abstención y a la recusación de los miembros del Tribunal, según lo establecido en la Ley 39/2015, cuando la norma que regula dichas figuras es la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen jurídico del Sector Público (artículo 23 y 24).

EK\CV GAO-I-2018-05046

7. Aldatzea hautaketa prozesuari dagokion zortzigarren oinarria, lehiaketaldiari dagokiona; honela geratuko da:

8.2. Lehiaketaldia.

Lehiaketaldia: 31,5 puntu.

Oposizioaldia gainditzen duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira, zeinetan Epaimahai kalifikatzaileak eskabidean adieraziak izan diren hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko baititu, baldin eta bosgarren oinarrian xedaturikoaren arabera behar bezala egiaztatuak izan badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta:

— Lan eskarmentua, 10 punturaino gehienez.

a) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, bete behar den lanpostuarekin lotutako buruzagitzako ardurak betetzen eta kanpineko arduradun karguan eginak badira, hileko gehienez 0,20 punturekin (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 4,5 puntu osatu arte.

Lanaldi osoa ez den kasuan puntuazioa hainbanatu egingo da.

b) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, erdi mailako turismo teknikari funtzioekin bat datozenak, 0,10 puntu lan eginiko hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 3 puntu osatu arte.

Lanaldi osoa ez den kasuan, puntuazioa hainbanatu egingo da.

Ondorio horietarako, zuzeneko harremanaren bidez, funtzionario gisa zuzenbide administratiboaren edo lan-itunpeko langile gisa eginak joko dira administrazio publikoan egindako zerbitzutzat atal honetan baloratzeko eraginetarako. Ez dira baloratuko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.4 artikuluan xedaturikoaren arabera, pertsonal ebentualaren lanpostuetan egindako zerbitzuak, ez eta bekak eta formazioko praktikak ere.

c) Enpresa pribatuan emandako zerbitzuak, hornitu nahi den lanpostuaren antzeko arduretan: 0,05 puntu lan eginiko hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 2,5 puntu osatu arte.

Lanaldi osoa ez den kasuan, puntuazioa hainbanatu egingo da.

— Formazio osagarria, gehienez ere 5 puntu.

Prestakuntza osagarria deialdiko lanpostuarekin zerikusia duena, Administrazio Publikoek antolatuta edo homologatuta; gehienez 5 punturekin baloratuko da, honako baremo honen arabera:

— 50 eta 100 ordu bitarteko ikastaroak: 0,75 puntu ikastaroko, orokorrean; lan taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak, 1,50 puntu ikastaroko.

— 101 eta 200 ordu bitarteko ikastaroak: 1,25 puntu ikastaroko, orokorrean; lan taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak, 1,75 puntu ikastaroko.

— 200 ordutik gorako ikastaroak: 2,5 puntu ikastaroko, orokorrean; lan taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak, 3 puntu ikastaroko.

— Atzerriko hizkuntzen ezagutza: 5,30 puntu gehienez baloratuko dira:

Ingeleseko C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 1,5 puntu gehienez.

7.º Modificar la base octava relativa al proceso de selección, en cuanto a la fase de concurso, que queda redactada así:

«8.2. Fase de concurso.

Fase Concurso: 31,5 puntos.

Las personas aspirantes que superen la fase de oposición accederán a la fase de concurso, en la que el Tribunal Calificador valorará los méritos siguientes, siempre que hayan sido alegados en la instancia y debidamente acreditados de acuerdo con la base quinta, con referencia siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias:

— Experiencia profesional, hasta un máximo de 10 puntos.

a) Servicios prestados en la Administración Pública en el desempeño de responsabilidades de jefatura, en calidad de Director/a de Camping, se valorará con 0,20 puntos máximo por mes (no se computarán fracciones inferiores), hasta un máximo de 4,5 puntos.

En el caso de que la dedicación no sea a jornada completa, se procederá a realizar el correspondiente prorrateo en la puntuación.

b) Servicios prestados en la Administración Pública en el desempeño de funciones realizadas como Técnico/a Medio/a de Turismo a razón de 0,10 puntos por cada mes de servicios completo (no se computarán fracciones inferiores), hasta un máximo de 3 puntos.

En el caso de que la dedicación no sea a jornada completa, se procederá a realizar el correspondiente prorrateo en la puntuación.

A estos efectos, tendrán la consideración de servicios prestados en la Administración Pública los realizados mediante relación directa, bajo el régimen de derecho administrativo como funcionario/a o de derecho laboral. No serán objeto de valoración la prestación de servicios desarrollada en puestos de personal eventual, a tenor del artículo 96.4 de la Ley 6/1989 de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, ni las becas y prácticas formativas.

c) Servicios prestados en la empresa privada, con responsabilidades similares a las del puesto a cubrir, a razón de 0,05 puntos por cada mes de servicios completo (no se computarán fracciones inferiores), hasta un máximo de 2,5 puntos.

En el caso de que la dedicación no sea a jornada completa, se procederá a realizar el correspondiente prorrateo en la puntuación.

— Formación complementaria, hasta un máximo de 5 puntos.

Se valorará la formación complementaria relacionada con las funciones del puesto convocado, organizado y homologado por las Administraciones Públicas, hasta un máximo de 5 puntos según el siguiente baremo:

— Cursos de duración entre 50 horas y 100 horas, se valorará con 0,75 puntos/curso y los que estén relacionados con la gestión de equipos de trabajo se valorará con 1,50 puntos/curso.

— Cursos de duración entre 101 horas y 200 horas, se valorará con 1,25 puntos/curso y los que estén relacionados con la gestión de equipos de trabajo se valorarán con 1,75 puntos/curso.

— Cursos de duración superior a 200 horas, se valorará con 2,5 puntos/curso y los que estén relacionados con la gestión de equipos de trabajo se valorarán con 3 puntos/curso.

— Conocimiento de idiomas extranjeros, hasta un máximo de 5,30 puntos:

Acreditar estar en posesión del nivel C1 de inglés o equivalente o superior: hasta 1,5 puntos.

EK\CV GAO-I-2018-05046

Frantseseko C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 1,5 puntu gehienez.

Alemaneko C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 1,5 puntu gehienez.

Beste edozein atzerriko hizkuntzaren C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 0,80 puntu gehienez.

— 4. HE izatea 11,20 punturekin baloratuko da.

8. Aldatzea hamabigarren oinarria, honakoa adieraziz: Proposatutako izangaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik hogei (20) laneguneko epean aurkeztu beharko ditu hautaketa prozeduran parte hartzeko laugarren oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.

9. Aldatzea hamalaugarren oinarria, honakoa adieraziz: karrerako funtzionario izendatutako praktiketako funtzionarioak hogei (20) lanegun izango ditu kargua hartzeko, izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

10. Hamabosgarren oinarrian, lan-poltsa bat sortzea aurreikusten da hautaketa prozesua gainditzen duten izangaiekin. Gainera, adierazten da lan-poltsa hori baliogarria izango dela antzeko titulazioa eskatzen duten lanpostuetako beharrak asetzeko.

Horri buruz gogoratzekoa da eratuko den lan-poltsa baliagarria izango dela, bakar-bakarrik, bete nahi diren lanpostuek deialdi honetako lanpostuaren betekizun berak dituztenean.

Era berean gogoratu behar da 2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartu dela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27 2016/679 Europar Araudia (EE), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena, eta 95/46/EE Zuzentaraua (datuak babesteko Erregelamendu Orokorra), eta bertan aipamen berezia merezi duela 32. kontuan hartuzkoan ezarritakoa.

11. Oinarrien I. eranskinean gaiak jasotzen dira. 15 gai orokor ezartzen dira eta 18 gai espezifiko; guztira, 33 gai. Horri dagokionez, 896/1991 errege-dekretuak dioena aipatu beharra dago eta horrek bere 8.3 artikuluan dio B kidegoko Azpieskalan sartzeko gutxienez 60 gai egon behar direla (B talde hori gaur egungo A2 Azpitaldearekin parekatuta dago EPOELaren hirugarren xedapen iragankorrak ezartzen duenari jarraituz). Ondorioz, beste 27 gai espezifiko eransten dira I. eranskinean; gai berriak honako hauek dira:

GAI ESPEZIFIKOAK

*Lehen Taldea. Euskadiko legedi turistikoa.*

19. Euskadiko Turismo Legea. Xedea, aplikazio-eremua eta helburuak.
20. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren turismo-eskumenak.
21. Euskadiko Turismo Administrazioaren egitura funtzionala.
22. Turismo Legearen garapena. Araudia.

*Bigarren taldea. Euskadiko enpresa eta establezimendu turistikoen jardueren araudia.*

23. Hotel-establezimenduen ordenamendua.
24. Kanpinen eta bestelako kanpamentu-modalitateen ordenamendua.
25. Baserri aldeko ostatu turistikoen ordenamendua.

Acreditar estar en posesión del nivel CI de francés o equivalente o superior: hasta 1,5 puntos.

Acreditar estar en posesión del nivel CI de alemán o equivalente o superior: hasta 1,5 puntos.

Acreditar estar en posesión del nivel C1 en cualquier otro idioma extranjero o equivalente o superior: 0,80 puntos.

— Estar en posesión del perfil lingüístico 4 de euskera: 11,20 puntos».

8.º Modificar la base duodécima, en el sentido de señalar que la persona aspirante propuesta presentará, en el plazo de veinte (20) días hábiles a contar desde el día siguiente a aquel en que se haga pública la relación de aspirantes que han superado las pruebas, los documentos acreditativos del cumplimiento de las condiciones que para tomar parte en el proceso selectivo se exigen en la base cuarta.

9.º Modificar la base decimocuarta, en el sentido de señalar que el/la funcionario/a en prácticas, nombrado funcionario/a de carrera, deberá tomar posesión de su cargo en el término de veinte (20) días hábiles a contar del siguiente al de la publicación del nombramiento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

10.º En la base decimoquinta, se prevé la creación de una bolsa de trabajo con los aspirantes que superen el proceso selectivo. Asimismo, se prevé que dicha bolsa sirva para cubrir necesidades de personal en puestos que exijan una titulación similar a la requerida en la convocatoria.

Al respecto, hay que recordar que la bolsa que se cree sólo podrá utilizarse cuando los puestos que se quieran cubrir tengan determinados los mismos requisitos que el puesto objeto de la presente convocatoria.

Asimismo, cabe recordar que el 25 de mayo de 2018 entró en vigor el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos), siendo de especial mención el Considerando 32.

11.º En el anexo I de las bases se recoge el temario, en el que se establecen 15 temas de materias generales y 18 temas de materias específicas, sumando un total 33 temas. Ahora bien, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.3 del Real Decreto 896/1991, el número mínimo de temas para el ingreso en la subescala del Grupo B será de 60 temas (grupo B que se refiere al actual A2 por la Disposición transitoria tercera del TREBEP), por lo que en el anexo I relativo a materias específicas, se incluyen además los siguientes 27 temas adicionales:

MATERIAS ESPECÍFICAS

*Grupo primero. La legislación turística de Euskadi.*

19. La Ley de Turismo del País Vasco. Objeto, ámbito de aplicación y fines.
20. Competencias turísticas de la Viceconsejería de Comercio y Turismo del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo.
21. La estructura funcional de la Administración Turística en el País Vasco.
22. Desarrollo de la Ley de Turismo. Regulación.

*Grupo segundo. Regulación de la actividad de empresas y establecimientos turísticos en Euskadi.*

23. La Ordenación de los establecimientos hoteleros.
24. La Ordenación de los campings y otras modalidades de turismo de acampada.
25. La Ordenación de los establecimientos de alojamiento turístico en el medio rural.


EK\CV GAO-I-2018-05046

26. Apartamentu turistikoen ordenamendua.
27. Aterpetxe turistikoen ordenamendua.
28. Euskadiko Enpresa Turistikoen Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua.
29. Bidaia-agentzien dekretua.

*Hirugarren taldea. Bestelako araudiak.*

30. Kontsulta-organoen araudia. Euskadiko Turismo Mahaia.
31. Turismo-erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren araudia.
32. Erantzukizun Zibileko Aseguruei buruzko arauak.
33. Itourbask, Turismo Bulegoen Euskal Sarea.
34. Lurraldekako Araudi Turistikoa.
35. Eskualdeko garapen-agentziak.
36. Urola Kostako Udal Elkartea.
37. Tokiko Araudi Turistikoa.

*Laugarren taldea. Araudi autonomikoa eta estatukoa.*

38. Erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa.
39. Haur eta nerabeak atenditu eta babesteko Legea.
40. Ingurumenari buruzko araudia. Mendiei buruzko araudia.
41. Kontsumoaren alorreko oinarrizko araudia. Kontsumobide.
42. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua.
43. Kostaldeen Legea.
44. Turismo Idazkaritza Nagusiaren egitura. Turespaña.

*Bosgarren taldea. Turismo-merkatua.*

45. Turismo eskaintza eta eskaera.

(*) Aipatu arautegietan aldaketak egiten badira, alor bakoitzean (eskari-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean) indarrean dauden testuak hartu beharko dira kontuan.

12. Aipatutako goiko aldaketa horiez aparte, indarrean daude bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2018ko maiatzak 4; 85. zenbakia) argitaratutako udal kanpineko zuzendari plaza jabetzan betetzeko oinarriak eta deialdi publikoa.

13. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskariak aurkezteko beste 20 laneguneko epea ematea, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Eskariak eredu ofizial eta normalizatuaren arabera aurkeztu behar dira. Behar bezala aurkeztutzat joko dira 85. zenbakidun 2018ko maiatzaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aurreko deialdira aurkeztutako eskariak, betiere deialdiaren oinarriak betetzen badituzte.

Jendeak jakin dezan argitaratzen da.

Orio, 2018ko uztailaren 11.—Jose Angel Zaldua Iparraguirre, alkatea. (5046)

26. La Ordenación de los apartamentos turísticos.
27. La Ordenación de los albergues turísticos.
28. La Organización y el Funcionamiento del Registro de Empresas Turísticas del País Vasco.
29. El Decreto de Agencias de Viajes.

*Grupo tercero. Otras regulaciones.*

30. Regulación de órganos consultivos. La Mesa de Turismo de Euskadi.
31. Regulación de los derechos y obligaciones de los usuarios turísticos.
32. Normativas sobre Seguros de Responsabilidad Civil.
33. La Red Vasca de Oficinas de Turismo Itourbask.
34. Normativa Turística de carácter territorial.
35. Las Agencias de Desarrollo Comarcal.
36. Urola Kostako Udal Elkartea.
37. Normativa Turística de carácter local.

*Grupo cuarto. Legislación autonómica y estatalvinculadas.*

38. El Reglamento sanitario de piscinas de uso colectivo.
39. La Ley de atención y protección a la infancia y a la adolescencia.
40. Normativa medioambiental. Legislación sobre montes.
41. Normativa básica en materia de consumo. Kontsumobide.
42. El Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad.
43. La ley de Costas.
44. La Estructura de la Secretaria General de Turismo. Turespaña.

*Grupo quinto. El mercado turístico.*

45. La oferta y demanda turísticas.

(*) Cuando se produzcan modificaciones en las normativas mencionadas, se tendrán en consideración siempre los textos en vigor en cada área a la fecha de finalización del plazo para la presentación de instancias.

12.º A excepción de las modificaciones introducidas, mantener plenamente vigentes las bases y la convocatoria pública para la provisión en propiedad de una plaza de Director/a del Camping Municipal, publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 85, de 4 de mayo de 2018.

13.º Conceder un nuevo plazo de veinte (20) días hábiles contados a partir del día hábil siguiente al de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para la presentación de las instancias, solicitando tomar parte en el proceso selectivo, ajustadas al modelo oficial y normalizado preparado al efecto, de modo y manera que las instancias presentadas en la anterior convocatoria publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 85, de 4 de mayo de 2018, se presumirán válidamente presentadas, siempre y cuando cumplan con las bases de la convocatoria.

Lo que se publica para conocimiento general.

Orio, a 9 de julio de 2018.—El alcalde, Jose Angel Zaldua Iparraguirre. (5046)

EK\CV GAO-I-2018-05046